

BERRIGARA

293. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1997, urriak 3



Kirol instalazioak aztergai



Berria
garajea

Bergararako FORD zerbitzu ofizial eskusiboa

MEKANIKA . ELEKTRIZITATEA . KARROZERIA

San Lorentzo poligonoa. Tf. 76 22 43

Pintxo bereziak, kazuelitak, bokadiloak, plater konbinatuak...
 edota kopatxo bat lagun artean hartu nahi baduzu, zatoz **Kayak** tabernara.
 Berriz zabaldu dugu **Matxiategi 3** behean.

Telefonoz ere hartuko dizugu enkargua. Tf. 76 70 11



JABE BERRIAK

KAYAK

BELATZ

Belatz Gorlako
 kantina berriak

Pilarika
 egunerako
 menu
 berezia

eskaintzen dizu



MENUA

Marmitakoa
 •
 Oliasko erdi patata
 erreekin
 •
 Ardo edo sagardo
 botila
 •
 Flana edo fruta
 •
 Kafea
 1.800 PTA

Bazkaria kanpoko mahaietan 13:00etatik aurrera. Mahaia hartzeko telefonoa: 58 50 23

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
T: 76 03 97
Faxa: 76 29 77

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkorobereibar

Maketazioa:

Iñaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Marpidetzak:

Sorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Etepan Plazaola

Marijo Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Sorka Elortza

Miguel Angel Elkorobereibar

Alex Labaien

Komikiak:

Sitor Rodriguez

Sorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Eneko Azkarate

Banaketa:

Antxangorri taldea

Tirada:

1000 ale.

Inprimategia:

Beru Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

1985/50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


IÑAKI MADINABEITIA

Bergarako Arans-Giko zuzendaria

- Zeintzuk ziren zapatuan ospatutako Gorreren Nazioarteko Egurenen aldarrikapenak?

- Nagusiki hiru ziren gizarteari eta agintariei zabaldutako aldarrikapenak: alde batetik zeinuen hizkuntzaren ofizialtasuna onartzea; bestetik, Eusko Jaurlaritzari, gorreren berezko ezaugarriak kontutan hartuz, hezkuntza iharduera zehatzak prestatzeko eskaera egin zitzaion, gorra gizartean lan egingo duten gizon eta emakume bezala hezi daitezzen; eta, azkenik, komunikaziorako dauden oztopoak (telebista esate baterako) ezabatzea eta gorrek gizartearekin bat egiteko hiritar guztien aukera berdinak izatea aldarrikatu genuen.

- Jende asko bildu



zen Gasteizeko manifestazioan?

- Bai. Gainera, lehen aldiz, Euskal Herriko gorreren elkarteak eta gurasoen elkarteak batera ospatu zuten eguna. Alde horretatik ere aurrerapausu bat eman da. Bestalde, bada-kigu minorien arazoek ez dutela lehentasunik gaurko gizartean baina behintzat ahotsa altxatu beharra dago.

“Gorrek ginontzeko hiritarrek dituzten eskubideak izatea aldarrikatu zen zapatuan”

I T U R R I O N E T I K

Forum Cinematographe taldearen emanaldia izango da urriaren 16an

Forum Cinematographe taldeak Alfred Hitchcock zuzendari ingelesak 1950eko hamarkadan errodatutako “Vertigo” filmearen kopia berriztua eskeiniko du Novedades aretoan urriaren 16an, 21:30etatik aurrera. Kim Novak eta aurreko hil zen James Stewart aktoreek protagonizatutako filme hau 80ko hamarkadan berrestreinatua zen baina ez bere jatorrizko formatoan. Orain kolorea eta soinua berreskuratu dira eta beraz espainiar zentsurak moztutako zatiak ikusi eta entzun ahal izango dira. “Vertigo” filmearen emanaldia jatorrizko bertsioan emango da, gaztelazko azpituluekin lagunduta.

E S A N
D U T E

“Zabor artea ezertarako balio ez duten eta inork nahi ez dituen gauzak baliatuz sortzen den artea da. Ideia da Neolitikora bueltatzea nolabait, hau da, dagoenarekin zerbait sortzeko gai izatea. Gauzak egiteko ez da beharrezkoa etengabe ekoizten, gastatzen eta kontsumitzen ibiltzea. Jendeari gauza guztiak aprobetxagarriak direla erakutsi nahi diogu. Zabor inorganikoa erabiltzen da eta edozein gauzak balio du: pilak, beira, papela, kartoia, plastikoa...”

JOXEAN IZA
Artista
EGUNKARIA

“Donostiako Galeria Dieciseis-en zabaldutako erakusketan autore klasiko batzuen lanetan oinarritu naiz, lehen kontatu zigutena birplanteatu nahirik. Gaur egungo artean ere bide ezberdinak hartzeko aukera dago eta horrekzalanza sortzen du”

JESUS MARI LAZKANO
Margolaria
EL DIARIO VASCO



ADICTOS AL AMOR

Eguakitza: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30.

(Ikuslearen eguna).

▼▼ **Che Guevararen** heriotzaren 30. urteurrena dela eta, Kultur Astea antolatu du Komite Internazionalistak.

Zapatuan Cheri buruzko argazki erakusketa zabalduko da Nahikarin eta martitzenean 19:30etan Kultur Etxean "Che compañero" izenburuko bideoa emango da. Kubako filmoteka nazionalak lagatako irudiekin eta Komite Internazionalistak grabatutako beste batzuekin egindako bideoa da. Azkenik, eguenean 19:15etan Elemental Zaharrea, Alfredo Ruiz Roche Kubako enbajadako kultura kontseilariak Che Guevarari buruz jardungo du.



▼▼ **Ados** antzerki taldeak "Lamiak" izenburuko lana eskeiniko du bihar zapatua 22:30etan Novedades aretoan. Garbiñe Losadak zuzendu eta idatzitako lan honetan, Maria Luzarraga, Maite Agirre eta Tessa Andonegi aktoreak arituko dira. Sarrerak 800 eta 500 pezeta (Gazte Txartela edo langabetu txartelarekin) salgai.

Zinea

▼▼ **Martin Scorseren** *iJo, que noche!* filmea protagonizatu zuen aktoreak (**Griffin Dune**) zuzendutako lehen filmea. *Sam* izeneko astronomoa (**Matthew Broderick**) erromantiko hutsa dugu eta txikitatik bere neska laguna izan den *Linda* (**Kelly Preston**) berreskuratzeko ahalegin guztiak egingo ditu. Baina tartean *Maggie* (**Meg Ryan**) ezagutu eta plan guztiak hankaz gora jarriko zaizkio...



Deiak

▼ **Kilometroak.** Domekan, urriaren 5ean, Pasaia-Lezora joateko autobus txartelak (900 pezeta) Aranzadi Ikastolan (76 26 76) eta Jardun elkarteetan (76 08 19) salgai.

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkarteak deituta, eguastenean, 18:30etatik aurrera, Seminarioko lokalean.

▼ **Erakusketa.** *Zabor art* izeneko erakusketa Donostiako Larrotxene Kultur Etxean urriaren 10era arte. Joxan Izaren lanak ikusgai.

▼ **Jesus Mari Lazkanoren** margo erakusketa Donostiako Galeria *Dieciseis* delakoan. Urriaren 26ra arte.

▼ **Benito Canteroren** argazki erakusketa Eibarko Arrate Kultur Elkarteetan urriaren 12ra arte.

Ogia

▼ **Domeka 5:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 3:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 4:** Camacho.
- ▼ **Domeka 5:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 6:** Puy.
- ▼ **Martitzena 7:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 8:** Estella.
- ▼ **Eguena 9:** Mozos.

MUJIKA  UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

Jubilatuak presente

Bergara eta Antzuolako jubilatuena Kultur Hamabostaldia prest

Datorren martitzenean 19:30etan, Jose Antonio Pagola Elizbarrutiko Bikario nagusiaren hitzaldiarekin, emango zaio hasiera Bergara eta Antzuolako jubilatuena antolatzen duten Kultur hamabostaldiari. Hitzaldiaren aurretik, Luis Mari Bandres Gizartekintzako diputatuak eta Jubilatuena Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak Kultur hamabostaldiaren helburuak zehaztuko dituzte. Hitzaldia eta aurkezpen ekitaldia Miguel Altuna zaharrean izango dira.

“Erretiratu izatetik presente egotera”

Hamabostaldiaren lema “Erretiratu izatetik presente egotera” da. Honekin, gizartearentzat baliagarri eta pertsonentzat atsegin izango den modu batean, presente egoteko erari buruz gogoeta egin nahi dute jubilatuak. Hamabostaldian antolatuko diren ekitaldietan parte hartuz, jubilatuak ezezik herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte Antzuolako eta Bergarako jubilatuena zuzendaritzek.

Eguenean, hilak 9, bertsolari eta trikitilariak



Jubilatuena egindako lanak ikusgai daude Kultur Etxean.

izango dira jubilatuena egoitzan 18:00etatik aurrera. Hurrengo egunean, hilak 16, arrastaldeko 07:30etan Miguel Altuna zaharrean, Maria Teresa Bazo doktoreak, EHUKo Soziologia katedradunak, 2.000. urteko gizarteari begira jubilatuena dituzten erronkei buruz hitz egin-

go du. Urriaren 21erako, ordu eta toki berean, Imanol Sorondo apaizak Bergara eta Antzuolako ermiten historiari buruz emango duen hitzaldia iragarri da. Aurretik, 17:00etatik aurrera, kultur bisitaldia egingo da Bergaran zehar San Martin plazatik irten-

Urriaren 23an, “erretiratu izatetik gizartean presente izatera nola pasa” gaiari buruz mahai ingurua antolatuko da. Bertan Bergarako udaleko, Elizako, Miguel Altuna institutuko, enpresa munduko, Jardun elkartearen eta elkarte gastronomiko bateko ordezkariak hartuko dute parte; moderatzailea Ana Bujanda izango da. Mahai ingurua Miguel Altuna zaharrean 19:30etan izango da.

Kultur Hamabostaldiari amaiera emateko, urriaren 24ean, eguakitza, merienda eta dantzaldia izango dira jubilatuena egoitzan 18:00etatik aurrera eta hurrengo egunean, zapatuan, meza, amaiera ekitaldia eta herri bazkaria. Amaiera ekitaldian, Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizar-te Zerbitzuen zuzendariak, Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak eta Mikel Larrea Antzuolako alkateak hartuko dute parte.

Mahai ingurua, Imanol Sorondo eta Juan Antonio Pagola apaizen hitzaldiak; erakusketa, dantzaldia eta herri bazkaria besteak beste

Bolintxo
OKINDEGIA
domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Konponbidea lehen bait lehen mesedez

Kruz Gallastegi kaletik Simon Arrieta plazarako zeharbidetik, etxeen azpitik, sarri pasatzen naiz eta bertan susto bat baino gehiago hartu dut behin baino gehiagotan. Simon Arrieta 3 etxeko atariaren ondoan kristalezko baldosak daude zoruan, antza denez azpian dauden garajeetara argi piskat sartu dadin. Baina kontua da baldosa horietako bat puskatuta dagoela. Zuloa tapatzeko ohol txiki bat jarri dute, baina arazoa zerbait konpondu bada ere, oso arrisku-tsu dago, batez ere gau partean eta argi gutxi dagoenean.

Ez gara gutxi bertatik pasatzerakoan estropozu egin eta ia muturrez aurrera jausi garenak. Gainera, inguru horretan haur ugari ibiltzen da jolasean eta benetan arriskutsua da oztopo hori.

Badakit lrala zinea bota zutela eta bertan obrak egitekoak direla, baina gai hori ere luzatzen ari dela uste dut. Eraikuntza berria egin arte itxoin barik, eskatuko nioke dagokionari, egur zatiaren arazoa konpondu dezala, herritarren baktek "istripu" serio bat izan ez dezan.

MIREN GARMENDIA

Ikasi nahiko banu

Ikasi nahiko banu diseinu graficoa... tira.

Ikasi nahiko banitu komunikasio eta sare lokalak... beharbada.

Ikasi nahiko banitu ikasteko metodoak eta oiturak... akaso.

Ikasi nahiko banitu aurkespen gutunak... agian.

Ikasi nahiko banu oinarrizko kontabilidada... igual

Ikasi nahiko banu administrasio-gestioa... ez dakit ba.

Ikasi nahiko banu sozietategi burusko zerga... neure dudak izango nituzke.

Baina balitz euskara ikasi nahiko nukeena, orduantxe bai ez nintzatekeela Bergarako akademia batera joango.

LUZIA OTADUI ETXANIZ

Berrigara Gida 98

Berrigara Gida 98, Bergara eta Antzuolako gida komertziala prestazen hasi gara dagoeneko. Aitziber Aretxaga arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu. Bestalde, ohiko telefonoz gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu Gabonetan kaleratuko dugun Berrigara Gida 98 liburuxkoak. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak. Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzeko eskatuko genizuke (76 03 97).

Tiira biraka

UNAI AZKARATE



Jose Maria Gonzalez Bastida hil zen

Joan zen zapatuan hil zen Donostian Jose Maria Gonzalez Bastida, 89 urte zituela. Konpositore bergararra, Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Udal Musika Bandako zuzendaria izandakoaren anaia zen. Bere aldeko hileta elizkizunak astelehenean egin zituzten Donostiako Artzai Oanean eta ondoren, Andoaingo hilerrian eman zioten lur. Gonzalez bastida Donostiako Easo abesbatzako zuzendari izan zen eta, horrez gain, Gasteiz, Irun, Zumaia eta Hemaniko musika bandak ere zuzendu zituen. Bestalde, Gasteizko kontserbatorioan armonia klaseak eman zituen. Hogei urtez Euskadiko Txistulari Elkarteko zuzendari izan zen eta urrezko domina jaso zuen 1982an bertan egindako lanagatik. Besteak beste, "Triptico vasco", "Gabon gabea" eta "Aita San Juanen bezpera" lanak konposatu zituen.



HILDAKOAK

Juan Bilbao Aranzabal
Irailak 24, 74 urte.
Victoria Gomez Perez
Irailak 27, 88 urte.
Pedro Aranburu Ibañez
Irailak 27, 77 urte.

JAIOTAKOAK

Julen Urresti Galdona
Irailak 20.

%2ko igoera Udal tasa, zerga eta prezio publikoetan

Asteleheneko Plenoan 1998rako ordenantza fiskalak onartu zituen udalbatzak aho batez. Datorren urtean Udal zergak, tasak eta prezio publikoak batzbeste %2 igoko dira. Igoera hau udalbatza osatzen duten alderdi politiko guztiek onartu zuten. Halere, zaborraren eta kanposantuen tasak %2 baino gehiago igoko dira eta HBk igoera horren kontra bozkatu zuen. Ordenantza fiskal berriei alegazioak egin nahi dizkieten herritarrek hilabeteko epea izango dute; epe hori pasatu eta gero, behin betiko onarpena emango zaie.

Zergei dagokienez, kontribuzioak, iharduera ekonomikoen gaineko zergak, ibilgailuenak eta erakuntzakoak %2ko igoera izango dute. Bestalde, kalifikatutako etxeak berriztu edo eraikitzeko Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen dituenen, zergaren %10 ordainduko da bakarrik, gainontzekoa dirulaguntza publikoaren bitartez ordainduko baita. Halere, Jaurlaritzatik dirulaguntzarik jasotzen ez denean, zergak oso osorik ordaindu beharko dira. Horrez gain, Diputazioak estrategikoak kontsideratzen dituen proiektu ekonomiko-



Zaborraren zerbitzua da gehien igo dena.

ak bultzatzen direnean, zergetan %95eko deskontuak egingo ditu Udalak.

Udal tasak

Uraren erreziboak (ura, zaborrak eta estolderia), %3,9ko igoera izango du eta, beraz, hiru hilebeteko ordainketa 6.233 PTA.koa izango da. Igoera hau zaborren zerbitzuaren garestitzeak ekarri du. Arrasateko AKEI errausketa-planta itxi zenetik zaborrak Beasainera eramaten dira eta garraioaren kostua garestitu egin da. Hori dela eta, zaborren tasak %19ko igoera izan du eta horrek eragin du erreziboaren igoera. Bestalde, kanposantuko tasak %15eko igoera izan du. Azkenik, lur pu-

blikoa erabiltzeagatik ordaintzen diren tasak %2ko igoera izan dute eta kalean mahaiaik eta aulkiak jartzan dituzten taberna edo kafetegiak lizentzia eskatzen duten momentuan ordaindu beharko dituzte dagozkien tasak: hilero, metro karratuko, 720 PTA.

Prezio publikoek (igerilekuak, kiroldegia, Udalak antolatzen dituen ikastaroak...) ere, batzbeste %2ko igoera izan dute. Salbuespen batzuk badaude: Ongizate zerbitzuak antolatzen dituen ikastaroek, esate baterako, ez dute igoerarik izan; Udal Euskaltegian, ostera, klase orduko %25eko igoera izan da: lehen 100 pezeta ordaintzen baziren, orain 125 ordainduko dira.

	ERREZIBOA	KANPOSANTUA		IBILGAILUAK	IGERILEKUAK *	
		Ura, zaborrak, estolderia	Nitxoa		Lur azpian	12-16 zaldí fiskal
1997	5.998	28.915	28.915	17.235	13.800	550
1998	6.233	33.252	33.252	17.580	14.100	550

* Igerilekuetako prezioak: lanean dauden 18 urtetik gorakoek ordaindu behar dutena.

“Bakea behar dugu” esaldiarekin panela jarriko da

Asteleheneko Plenoan “Bakea behar dugu” lema eta ikurriña daraman panel zuria Udaletxeko balkoian jartzea erabaki zuen udalbatzak. Herri Batasunak aurkeztutako mozioaren aurrean, beste mozio alternatibo bat aurkeztu zuten hiruko gobernua osatzen duten alderdi politikoei. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako ekimena Bergarako udaletxera zabaltzea eskatzen zuen Herri Batasunak. Horretarako, “*gaur egungo gatazka egoera gainditzen ez den bitartean*” panel zuria Udaletxean jartzea eskatzen zuen, “*herri honek pairatzen duen gatazkak konponbidea behar duelako eta era berean, argi dugulako konponbide hori elkarrizketatik etorriko dela*”. Bestalde, hiruko gobernua “*gizarte normaldu eta baketsu baten aldeko herri konpromezua bizirik mantentzeko helburuarekin*” panel zuria jartzea eskatzen zuen. Azkenean, esan bezala, mozio hau onartu zen. Bertan, besteak beste, zera esaten zen: “*Euskal herritarrok bakea behar dugu. Tolerantzia eta justizian eraikitako bakea, errekontziliazio eta elkarbizitza bilatzen duen bakea. Bake egonkorra. Eta gaur egun ETA da bake hau lortzeko oztoporik nagusia*”.

Musika Eskolako bideoa salgai

“San Martinen Estanpa”ko irudiak jasotzen dituen bideoa nahi dutenek Musika Eskolan, Etxeparen eta Lazkanon erosi dezakete 2.000 pezetaren truke. Batzen den dirua Musika Eskolako beharrei aurre egiteko erabiliko da.

Jose Luis Feok bigarren saria lortu zuen Ordizian

Jose Luis Feo arrasatearrak, Pol-Pol Argazki Taldeko argazkilariak, bigarren saria lortu zuen Ordiziako argazki rallyan.



Luis Mari Bandres diputatuak eta alkateak inauguratu zuten zentrua joan zen eguakitzean.

Eguastenean jarri zen martxan jubilatuetan Eguneko zentrua

Alzheimerre duten gaisoak egunez zaintzeko zerbitzua da

Eguastenean jarri zen martxan jubilatuen egoitzan Eguneko zentrua, alzheimerre edo zahartzaroko dementsia duten gaisoak egunez zaintzeko zerbitzua. Eguneko zentrua astelehenetik eguakitzera goizko 10:00etatik 18:00ak arte egongo da zabalik eta bi klinika laguntzailek zainduko dituzte gaisoak. Une honetan 7 gaiso zaintzen dituzte, guztiak bergararrak, baina 10 edo 12 laguntzako toki egon daiteke. Eguneko zentroan 60 urteko gorako gaisoak zainduko dira - une honetan 66 urte dituzte gazteenak eta 92 zaharrenak - eta hileko kuota garestiena 41.163 PTA.koa eta 5.000 PTA.koa merkeena. “*Gaisoaren eta honen bikotearen abalmen ekonomikoaren arabera finkatuko dira prezioak. Zenbat eta diru sarrera haundiagoa izan gehiago ordainduko dute*” esan digu Xabier Legorburuk, Udaleko Gizarte Laguntzaileak.

Eguneko zentrua jubilatuen egoitzako sarreraren ezker aldean kokatuta dago eta 85 metro karratu

hartzen ditu. Honako zerbitzu hauek eskaintzen dira: egunero etxetik zentrorra eta hemendik etxerako garraioa, jatorduak (bazkaria eta merienda), garbitasuna eta gaiso bakoitzari egokitutako iharduerak (orientazioa edo memoria lantzeko ariketak...).

Eguneko zentrua jartzeko lehen urratsak orain dela bi urte inguru eman zituen Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak, etxean alzheimerre gaisoak ziztuzten familiarren eskakerei erantzuna eman nahian.

Obrak ekain inguruan hasi zirela eta zentrua joan zen eguakitzean inauguratu zuten Luis Mari Bandres Gizartekintzako diputatuak eta Victoriano Gallastegi alkateak. Obrak 8 milioi pezetako aurrekontua izan dute eta ekipamenduan beste 4 milioi pezeta inguru gastatu dira. Gipuzkoako Diputazioak obrak eta ekipamenduaren erdia ordaindu ditu. Bergara inguruko herrietan, Legazpi, Urretxu, Eibar edota Deba eskaintzen da era honetako zerbitzua.

Asteburuetako aisialdi eskaintza martxan Gartzela Zaharrean

Ikasturte berria hasi dela eta, 11 urtetik gorako gazteentzako aisialdi eskaintza martxan jarriko du aste-bukaera honetan Jardunek Gartzela Zaharrean. Urtean zehar, zapatu eta domeketan 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta era askotako jarduerak antolatuko dira: eskulan, antzerki edota dantza tailerrak, jolasak, irteerak, akanpadak, berbetan egiteko txokoa... Gartzela Zaharreko bazkide izan nahi dutenek txartela atera ahal izango dute. Izena ematerakoan, urte osorako 3.000 PTA ordaindu eta bi argazki eraman beharko dira Gartzela Zaharrera. Bazkide txarteldunek, antolatzen diren tailer guztiak doan izango dituzte.

Zapatu arratsalde honetan, ping-pong eta futbolin txapelketak

eta Itxaro, Maite eta Aitzolekin jaialdia izango dira; domekan, berri- rriz, eskulan, joku eta abarren txo- koak antolatuko dira.

Gartzela Zaharreko astebukae- retako aisialdi eskaintza iaz jarri zen martxan eta 83 gaztek atera zu- ten karneta. Iazko moduan aurten ere begiraleak egongo dira; aurten



honako hauek ibiliko dira: Nuria Barrero, Nerea Gallastegi, Saioa Ber- rraondo, Idoia Ilarduia, Kepa Egu- ren eta Aizpea Uribe.

Euskal Bizikleta Bergarara

Datorren urteko Euskal Bizikletako etapa bat amaitu eta hurrengo egunekoa hasiko da Bergaran. Lokatza ziklismo elkarteak eta Euskal Bizikletaren antolatzaileak harremanetan izan dira eta seguruen 1998ko Euskal Bizikletako hirugarren etapa, maiatzaren 31koa, Bergaran bukatuko da. Egun horretan hasiko dira datorren urteko Bergarako jaiak. Beraz, Pazko eguakitzean txirrindulariak Bergarara helduko dira. Etapa baten amaiera eta hurrengoaren hasiera antolatzeak 5 milioi eta erdi pezeta inguruko aurrekontua du eta Udalak hiru milioi eta erdi inguru emango ditu, horrela erabaki baitzuen joan zen astelehenean udalbatzak; gainontzekoa publizitatearen bidez atera beharko dute Lokatzakoek. 1992ko edizioan heldu zen azken aldiz Bergarara Euskal Bizikleta. Orduan ONCEko Philippe Louviot frantziarra (argazkian) izan zen garaile; Ibargaraiko helmugara bakarrik heldu zen.



Angiozarko jaietako zozketa

Angiozarko jai batzordeak antolatutako zozketan 0450 zorbakia izan da saritua.

Txartelaren jabeari Port Aventura- rako bidaia tokatu zaio astebeterako bi pertsonarentzako. Ordezko zorbakia 2508 da.

Asmaizu lehiaketa

Bergarako Akulu-AEK Euskaltegiak antolatzen duen Asmaizu lehiaketan 267 lagunek hartu zuten parte joan zen astebukaeran. Erantzun zuzeneko 45 txartel zenbatu ziren eta ondoren egindako zozketan Alex Alonsori suertatu zitzaion saria. Erantzun zuzena hau zen: "Bat-batean haize bolada batek baserriaren aurrealdean esegita zeuden arropa guztiak eraman zituen". Aste honetan ere lehiaketan parte hartzeko aukera izango da Antzuola, Elgeta, Angiozar, Osintxu eta Bergarako hainbat tabernatan jarritako kutxetan txartela lagaz.

Harakinen zozketa

Bedelkarreko harakinek astero zozketatzen dituzten txuletak aste honetan 3.353 zorbakia duenarentzat izango dira.

"Epi"ren aldeko meza

Uztailaren 24an Donostian hil zen Joxe Angel Barrenetxea Lugarizaristi "Epi" zenaren aldeko meza izango da domekan, urriak 5, goizeko 11:30etan Antzuolako Errukizko Amaren elizan. Bere gazte denborako Antzuolako lagunek antolatu dute.

Nafarroa Oinezarako jendea

Urriaren 19an Tafallan ospatuko den Nafarroa Oinezan, Nafarroako ikastolen jaietan, lan egiteko jendea behar da. Interesa dutenek Jardunera deitu dezakete (76 08 19).

Mahai Nazionalaren epaiketa: hainbat ekitaldi antolatu ditu HBk

Herri Batasunako Mahai Nazionalaren epaiketa dela eta, antolatu diren ekitaldien berri emateko eta epaiketaren balorazioa egiteko prentsaurrekoa eman zuten HBko Bergarako zinegotziek Udaletxeko arkupetan joan zen eguastenean.

HBko Mahai Nazionalako 23 kide, tartean Jose Luis Elkoro, epaituko dituzte astelehenean Madrilko Entzutegi Nazionalean, ETArri laguntza ematearen akusaziopean. Epaiketa honekin, HBren eta Ezker Abertzalearen proiektu politiko guztia kriminalizatu nahi dutela esan zuen Agurne Barruso zinegotziak eguasteneko prentsaurrekoan. *"Intoxikazio informatiboaren eta errepresioaren ildotik, bide judiziala ere zabaldu dute eta epaiketa hau ildo horren barruan kokatu beharko litzateke"* esan zuen.

Epaiketaren inguruan hainbat jarduera eta ekitaldi bultzatan ari direla esan zuen: alde batetik, manifestu bat kaleratuko dute eta herritarren atxekimenduak jasoko dituzte; bestalde, autoinkulpazio kanpaina bat egingo dute eta autoinkulpatuen zerrenda Bergarako epaitegira eramango dute bihar, zapatua, eguerdiko 12:00etan. Aurretik kontzentrazioa egingo da San Martin plazan. Horrez gain, hiru manifestazio antolatuko dituzte: gaur, eguakitza, 19:00etan, eta



Herri Batasunako zinegotziak joan zen eguastenean Udaletxeko arkupetan emandako prentsaurrekoan.

datarren hilaren 11n eta 13an. Bestalde, datorren astelehenean herriko lan-tegi eta ikastetxeetara zabalduko dute epaiketaren inguruko informazioa eta martitzenean, kotxe karabana antolatuko dute. *"Epaiketa honek isladatzen duen gauza bakarra da Euskal Herriarentzat ez dagoela demokrazia-rik eta libre izateko daukagun eskubidea aldarrikatu nahi dugu ekin-tza hauekin guztiekin"* esan zuen Agurne Barrusok.

Osoko Bilkurak

Bestalde, epaiketaren inguruan HBk aurkeztutako mozioa aztertzeke eguasten eguerdian egin zen Plenora ez agertzearen arrazoiak argitu zituzten HBko zinegotziek.

HBko zinegotziak ez ziren Plenora agertu lan

orduetan konbokatzen diren plenoetara joaten ez direlako. Eduki politikoak aztertzen direnean edo konfliktiboak izan daitezkeenean Plenoak lan orduetan konbokatzea salatu zuten HBko zinegotziek eguasten iluntzeko prentsaurrekoan.

Eguerdian egin zen Plenoan, HBko mozioaren ordezkariak beste mozio alternatibo bat aurkeztu zuen. Mozioak lau puntu zituen eta puntu-puntu bozkatu zen. Lehenengoan, HBko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketaren fundamentazio osoa *"proposamen politiko baten bedapenetik etor daitezkeen zigor batekin gure ezadostasuna adierazten dugu, bertan aurki daitezkeen ezadostasun elementuetatik kanpo"* esaten zen. Bigarren puntuan, *"Eus-*

kal Herriaren eta estatuaren artean konpondu gabeko liskar politikoren soluzioa elkarriketa eta bide demokratiko eta baketsuz adierazitako euskal hiritargoaren gebiengoak onartuta" etorri beharko dela esaten zen eta hirugarrenean, ETArri indarkeria lagatzea eta *"berri bonen gebiengoaren borondatea onartzea"* eskatzen zitzaion; laugarren puntuan, azkenik, *"estatuko alderdi eta erakundeek, euskal erakundeek eta modu baketsu eta demokratikoaz hiritarren gebiengoak bartutako erabakiak"* onartu ditzatela esakatzen zen.

PSE-Eek lehenengo puntuari ezetza eman zion eta EAJ eta EAren aldeko botuekin onartu zen; gainontzeko hiru puntuak aho batez onartu ziren.

Osasuna

Genetika polemika

- Zela definituko zen nuke genetika?

- Genetika bizitzaren benetako oinarria da, edozein bizitza mota nolako den esaten duten unitateak geneak dira. Hau da, genetan idatzita daukagu begi urdinak ditugula, edo sudur luzea, edo eta beharrezkoak baino hagin gutxiago. Landareetan ere berdin, tomateak gorriak dira genetan idatzirik daramatelako, eta pataten itxura ere geneak erabakitzen dute. Informazio genetikoa indibiduoaren erakuntzari buruzko informazioa ematen digu.

- Aldaketa genetikoa egiteko modua ere aurkitu da...

- Nire ustez oso aurkikuntza garrantzitsua da. Hala ere lege moralekin jokutzen da, aldaketa genetikoa ez du oso fama onik, batez ere mundu honetan eman den prekauzio ezak eraginda. Askotan ez dakite nola jokatuko duten genetikoki aldatutako elikagaiak, baina saldu egiten dira. Hala ere, badaude inolako arriskurik ez duten elika-

gaiak ere.

- Zelan egin daitezke aldaketak?

- Era zentzudun batean edo era okerrean. Era okerrean emandako aldaketak orokorrean ahal den diru gehien irabazteko egiten dira, sojaren kasua adibidez. Soja transgeniko famatua intsektizida kantitate gehiago jasateko modifikatu zen. Horrela plagen ondorioak txikiagoak ziren,



BITTOR RODRIGUEZ

(Dietista eta Elikagaien Teknologoa)

baina sojarekin doazen intsektiziden hondakinak askoz gehiago izango dira. Produktu hau oso kalitate txarrekoa da. Eta erabilitako gehiegizko intsektizidek ingurugiroan ere badute eragina. Produktuaren kalitatea ez da aldatzen, soilik pro-

“Genetikarekin zentzudun jokatzuz gero kalitate hobegoko elikagaiak egin ditzakegu”



Piparik gabeko fruta aspalditik dago merkatuan. ARTXIBOA

duktibitatea.

- Eta modu egokian egindako aldaketei buruz, zer esango zeniguke?

- Landare bat, intsektizidak jasateko aldatu beharrean, gaixotasuna edo plaga gainditzeko gai izateko aldatu dezakegu. Ni neu horrelako proiektu bat aurrera eramaten duen inbestigazio zentru batean ikasten egon naiz udan eta benetan harrigarria da egin daitekeena. Hau garestiagoa eta luzeagoa da, ez da hainbeste diru ateratzen, baina ez ditu lehen aipatutako kasuaren eragin txarrak, ez gizakiarentzat eta ezta ingurugiroarentzat ere. Produktuak badaude merkaturan urteak direla. Piparik gabeko fruta adibidez. Urteak dira jaten ditugula baina ez gara konturatu. Orokorrean ez dute inolako eraginik gizakiarentzat.

- Bizitza kalitatearen hobekuntza dakar horrek?

- Ingenieritza genetikoa bizitza kalitatea hobetzeko erabil daiteke, gizakiaren esku dago hori. Interes ekonomiko hutsen bidean genetikak ez du etorkizunik, baina zentzudun jokatzuz gero kalitate hobegoko elikagaiak egin ditzakegu, gaisotasun asko sendatu adibidez. Minbiziaren gakoak ere genetikan dago.

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxes: 76 04 77



Industria
hornikuntzak

U
UNIFE

Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxes: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxes: 77 13 08

Kirolaren ordua

Udaleko kirol instalazioak aztergai

Ikasturte berria mar-txan jartzearekin batera, asko eta asko dira berriz ere kirolen bat egiten hasten direnak. Kirol instalazioak tope-raino daude egunotan. Hori dela eta, Udaleko instalazioen egoera az-tertu dugu Kirol Zerbitzua eta instalazioak erabiltzen dituzten hainbat kirolariren la-guntzaz.

Udal Kirol Zerbitzua 3.704 bazkide ditu gaur egun eta urteko kuota ordaintzen dutenek piszinetara sartzeko eskubidea daukate Kirol Zerbitzuko karnetarekin. Labegarrietako Kiroldegia zein Udalaren ardurapean dauden hainbat pilotaleku erabili ahal izateko, berriz, alokairua ordaindu beharra dago. Osintxu eta Zabalotegiko pilotalekuetan orduak 400 pezeta balio du eta Elorregikoan gertatzen den moduan, argia erabiliz gero, 200 pezeta gehiago ordaindu behar dira. Osintxun eta Zabalotegin aldagelak eta dutxak erabiltzeko aukera



Udal instalazioez gain, hitzarmenak daude ikas orduetatik kanpo ikastetxeetako instalazioak erabiltzeko.

dago. Kiroldegia eta alokatzen diren frontoiekin, kobratzeko orduan, Kirol Zerbitzua ez du kontutan hartzen erabiltzaileak bazkideak diren ala ez.

Udalak, era berean, Udal Pilotalekuaren arduraren berreskuratu du berriz baina Kirol Zerbitzua ez du zehaztu oraindik Frontoiko kantzaren alokairua

zenbatekoa izango den aurrerantzean. Bestalde, gainontzeko pilotalekuen erabilera debaldekoa da.

Angiozarko pilotalekua

Xabier Zabaleta kirol zinegotziaren arabera, "frontoien kasuan hainbat berrikuntza egin dira

azkenaldian. Udal Pilotalekua zabaltzeaz dago azken obrak burutu ondoren eta zapatu honetarako pilota partiduak iragarrita daude. Azken lan hauen aurrekontua 11 milioi pezetakoa izan da. Orain jendeak pilotalekua erabili ahal izateko prezioak errebisatu behar ditugu eta erabili

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Araudi berriaren arabera, udalek ahalmena izango dute ordutegi bereziak baimentzeko herriko jaietan edo jaiegun berezietan

egin beharko da bertan palan jokatu abal izango den ala ez”.

Herriko beste zenbait pilotalekutan ere hobekuntza lanak egin dira azkenaldian. Zabaletak berak adierazten digunez, “Osintxuko pilotalekua iaiz margotu zen; Zabalo-tegikoa margotu egin da eta tetxuan ere konponketa lanak egin dira eta Elorregikoan ere lan txikitxo batzuk egin behar izan dira azkenaldian jendeak eragindako kalteen erruz. Gainontzeko frontoien kasuan denetik dago. Erabilera txikia da eta batzuk ez daude baldintzarik onenetan”.

Aurten Udalak Angiozarko frontoia berrizteko lanei ekin nahi die. Urtea amaitu baino lehen Angiozarko pilotalekua estaltzeko lanak hasia es-

pero da. Proiektuak 50 milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka.

Kiroldegia

Kiroldegiari dagokionez, kanpoko kantxetari-ko bat asfaltatu berri da eta bertan futbitoan zein tenisean jokatzeko aukera dago. Francisco Javier Roige Kiroldegiko langilearen hitzetan, “Kiroldegian nabiko jende ibiltzen da, bai. Baina kontutan izan Kiroldegian ez dagoela instalakuntza osagarririk eta gehiengotan kantxa bakarra egoten dela martxan. Aste-barruan, 18:30etatik 22:30etara bitartean entrenamenduak izaten dira eta Kiroldegia erabiltzeko moduan izaten den 20 orduetatik 7 ordu alokairuan egoten da.

Gimnasia erritmikoa, saskibaloia edo eskubaloiko entrenamenduaren ondoren, futbitorako ordu batzuk alokatzen dira eta normalean urte guztian hartuta egoten dira ordu horiek. Badira urte osoan zehar jokaten duten taldeak eta hilabete-ren batean talderen bat jokatu ezinik geratzen bada hurrengo hilerako ordua gordetzen zaio, horrekin ez da arazorik izaten”.

Kiroldegiko kantxa alokatzen den orduetan futbitorako erabiltzen da beti. Roigek azaltzen digunez, “saskibaloian edo eskubaloian jokatzeko ez du jendeak kantxarik hartzen”. Kiroldegiaren kanpoaldean, esan bezala, futbitoa eta teniserako erabiltzen den kantxa dago; “astearte eta ostegu-

netan tenis ikastaroa izaten da eta badago tenisean jokatzeko oitura duen jendea, ez asko baina badira zaletu batzuk herrian” diosku Roigek. Hala ere, Xabier Zabaletak argitzen duen moduan, momentuz ez dago tenis kantxa iraunkorrik jartzeko asmorik.

500 lagun futbitoan

Egunero, batz bestea, 80 bat lagunek erabiltzen dituzte Kiroldegiko instalazioak eta astebukaeran, herri arteko txapelketeko partiduez gain, herriko futbito txapelketa jokatzen da. Aurten ia 500 lagun ari dira parte hartzen. Futbitoko partiduak zapatu eta domeketan izaten dira, barruko zein kanpoko kantxetan.

Kiroldegiaren atzealdean rokodromoa dago. Pol-Pol Mendizale taldeko bazkideek sarrera debaldekoa badute ere, kanpotarrei 450 pezeta kobratzen zaie rokodromorako sarrera. Xabier Zabaletaren ustetan, beharbada Kiroldegiko arazorik haundiena kalefazioarena da; “baina oso garestia izango litzateke Kiroldegi osoan kalefazioa sartzea eta oraingoz ezin diogu horri aurre egin. Tetxuan hutsune batzuk daude eta batzutan korrienteak sortzen dira. Hutsune horiek estaltzeko asmoa daukagu. Bestalde, Kiroldegian ere

Herria	Helduen sarrera igerilekuetara	Igerilekuetako urteko kuota	Kiroldegia, kantxa orduko
ARRASATE	630	12.100	3.600
OÑATI	660	12.525	3.720
ARETXABALETA	500	10.400	3.000
BERGARA	550	13.800	3.100

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

Usoa Pub




☎ 76 38 57
Irala, 1




MARTIN GARMENDIA

Astean bost bal aldiz joaten naiz piszinetara, korrikan egitera gehienetan. Aldageletan oso espazio gutxi dago egunotan jende asko dabilelako Behobia-Donostia lasterketa gertatzen. Gainera hiru dutxa besterik ez daude. Instalazioak zaharrak geratu dira eta gimnasioa lehen baino okerrago dago orain jarritako tokian. Barruko piszinak ondo daude baina jende asko joaten denean ez dago igerian egiteko lekurik. Kanpokoak hobeto daude.



IKER BEISTEGI

Astean bi aldiz etortzen naiz Agorrosinera korrika piskat egitera. Gimnasioaren aldaketa txarrerako izan da. Leku pribatu batean egun batetik bestera egingo zuten aldaketa baina hemen pare bat hilabetetan gimnasio barik egon ginen. Aldagelak ondo daude baina uraren temperatura erregulatzerik ez dago eta oso beroa edo oso hotza etortzen da. Piszinetara udan gehiago etortzen naiz. Kanpokoarekin konparatuz piskat zahartuta eta txikia geratu da barrukoa.



AITOR ERAÑA

la egunero etortzen naiz korrika egitera. Instalazioan ibiltzen den jenderako nahikoa da. Ez dakit merezi duen berriak egitea, horrelako inbertsio handia egitea. Nik egingo nuke mantenimendu apurtxo bat, dena osatu, hobeto ipini eta sortzen diren arazoak (hezetasuna adibidez) konpontzen saiatu. Ordutegia ere luzatuko nuke; askotan lanetik berandu etorri eta orduaren menpe zaude. Goizean ere gimnasia emateko 7etatik aurrera zabaldu, jendea beste toki batzutan apuntatzen da eta.



FERNANDO MORETON

Nahiko erabiltzen dut Kiroldegia, bai. Astean zehar saskibaloiko entrenamenduak izaten ditugu barruko kantxan eta astebukaeran partiduak. Futbito txapelketan ere ari naiz jokatzeko. Kiroldegia ondo dago (barruko kantxa inguruko onenarikoa da) baina pabiloi bakarra izatean ez du aukera gehiegirik ematen. Beste kiroldegi batzuk joko gehiago ematen dute. Hemengoa oso saturatuta dago gainera. Ez da nahikoa. Estalitako beste Polikiroldegi bat egon beharko litzateke Bergaran.



ELENA HERREROS

Astean lau egunez gimnasia erritmikako entrenamenduak egiten ditugu. Gauza on bakarra Kiroldegiaren altura da. Beste guztia txarto dago: hotza, ez daukagu ispilurik, gimnasiorik eta balleta egiteko lekurik ere ez... Ez gaude gustora Kiroldegiarekin baina ez dago beste toki hoberik. Neguan bi gradu zero azpitik izan gara eta txapelketetan ikusleak izoztuta geratzen dira. Bestalde, orain arte dutxa bakarra duen arbitroaren aldagela erabili behar izan dugu.



ASIER MADINABEITIA

Urte osoan astean behin etortzen gara Zabalotegiko pilotalekura palan jokatzera. Lau lagun etortzen gara. Ez da Bergarako frontoirik onena baina gertu dago, estalita dago eta aldagelak dauzka. Izerdi batzuk botatzeko ondo dago. Ordua 400 pezeta kobratzen digute eta argiagatik beste 200 pezeta ordaintzen ditugu. Ez gara beste frontoitara joaten. Honek daukan arazoa beroarena da; udan sauna bat da baina bestela neguan ondo dago eta gustora jokatzeko dugu hemen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

gutxituei zuzendutako gela bat jarri da eta Kiroldegiko beheko planta margotu egin da”.

Agorrosingo igerilekuak

Agorrosingo igerilekuan bestalde, udazken-neguko denboraldiari hasiera eman zaio eta beraz kanpoko piszinak itxita daude dagoeneko. Kirol Zerbitzuaren arabera, ikasleen igeri kanpaina irailaren 22an hasten zenez, eta kanpoko eta barruko piszinak ezin direnez batera zabalik eduki, kanpoko piszinak San Martin jaien ostean itxi ziren. Kanpokoak zein barrukoak aldi berean zabalik egon ahal izateko igerileku bakoitzak aldagela propioak izan behar ditu. Barruko piszina zaharra geratu omen da Xabier

Zabaletaren ustez; *“26 urte egin ditu eta obra pilo bat egin diren arren, piszina txiki geratu da. Espazio falta nabaria da eta igeri taldearentzat ere lekurik ez da izaten askotan. Jendeak ere ezin du nahi duen orduan joan, jende aldetik hobeto dagoen orduetan joaten abalegintzen da”.*

Egunotan ere Behobia-Donostia lasterketa eta Donostiako maratoia gertatzen ari diren korrikalari asko izaten dira piszinetako aldageletan. Kirol Zerbitzuak nahi baino dutxa gutxiago daudela aitortzen du. Bestalde gimnasioa lehengo squash-heko kantxetara pasatu

da bertan aerobic klaseak eman ahal izateko. Orain hezetasun arazoa sortu da eta baliteke azkenean aerobic klaseak beste nonbaiten eman behar izatea.

1996ko apirilean Udalak kanpoko piszina estali eta neguan zein udan erabiltzeko aukera aztertu zuen baina lan hori aurrera eraman ahal izateko aurrekontua (409 milioi pezeta) gehiegizkoa zen Udalaren iritziz. Bakarrrik barruko piszinaren e- struktura berriztea (burdinak, tabikeak eta tetxua) 40 milioi pezeta kostatuko litzaioke Udalari. 1995eko abenduan gaur egun igerilekuei eskatzen zaien araudira egokitzeko


zer nolako lanak beharrezkoak ziren aztertu zuen Udalak eta aurrekontua 12 milioi pezeta-koa zen. Besteak beste, barruko piszinetan beharrezkoa da piszina txikiak zein haundiak ur tratamendu ezberdina izatea eta hori ez da betetzen gaur egun.

Zabaletaren ustez, soluzioa kanpoko piszina estaltzearena da; *“hemen- dik 5-6 urtera hori egitea ondo egongo litzateke, posible bada behintzat”.* Agorrosingo igerilekuak defizitarioak dira gaur egun eta Kirol Zerbitzuari dagokionez, 1996an autofinantziazioa %39,51ekoa izan zen.

1996an kanpoko piszinak estali eta neguan zein udan erabiltzeko aukera aztertu zen baina aurrekontua (409 milioi) gehiegizkoa zen

Linua, ehuna, artilea

Jaione Isazelaiak idatzia



- Juan Martin Elexpururen zuzendaritzapean, Miren Azkarate eta Txarles Bidegain euskaltzainen aholkularitzarekin.
- Koloretako argazki ugariz hornitua.

**Eskaintza berezia 1.500 PTA.
Gabonetatik aurrera, 2.200 PTA.**

Bergarako liburudendetan salgai.



BERGARAKO UDALA

Zer modukoa izan da eskolara bueltatzea?




Ander Arazkonaga

Ondo, aurten 3. mailan ari naiz eta gustora nago. Oraingoz nahiko erreza da eta lagunekin batera nago klasean. Andereñoa ere oso ona da.



Maialen Madariaga

Ez naiz oso gustora hasi, oporretan hobeto ibiltzen da. 6. mailan ari naiz eta lau lagun gaude elkarrekin klasean. Irakasle onak dauzkagu. Gutxien ingelesa gustatzen zait.



Iker Arazkonaga

Gustora nago tokatu zaidan klasearekin, 4. mailan nago. Ikasgai gehiago ditugu aurten: zailena matematikak eta gehien gustatzen zaidana, ingurunea.



Soiartze Heras

Bueno..., klasean nahiko aspertzen naiz. Goiz eta arratsaldez hasi gara eta arratsaldeko klaseak arinagoak dira. Plastika da gehien gustatzen zaidana eta gutxien, ingurunea.



Naiara Cantero

Ondo, 5. mailan hasi naiz eta gustora nago lagunekin batera. Plastika eta matematikak gustatzen zaizkit gehien eta gutxien hizkuntza.



Ion Errasti

Orain pare bat aste hasi gara eta oraingoz nahiko lasai gabilta. 6. mailan nago eta ikasgai zailagoak ditugu. Matematikak gustatzen zaizkit baina hizkuntza...



Che Guevara 1967-1997 30. urteurrena

Zure zintzotasuna guztiontzat eredu

KULTUR ASTEA
urriaren 4tik 11ra
Bergaran



**KOMITE
INTERNAZIONALISTAK**



Jakion, S.L.

Aste honetako Berrigara kaleratuaz batera gure eskualdean ekintza interesgarri bat mamituko da. Zehazki, gaur goizean Leintz-Gatzagan kokatua dagoen elkarte baten aurkezpena egitekoa zen. Jakion S.L. elkarteari buruz ari naiz.

Jakion, 1997an Deba Garaia Bailarako nekazal produktuen elabozariorako sortu den enpresa bat da. Leintz-Gatzagan kokaturiko enpresa honek elaboratzen dituen produktuak artesau metodoak erabiltzeaz gain, produktoreek beraien baserrietan egin izan dituzten transformazioak (sanitate arauak bete behar dituztela eta) egiten ditu. Nekazaritzako produktuak erosiz eta prozesatuaz (baserriko frutak eta barazkiak batez ere) elkarte honek Deba Garaiko baserriaren indarberritze ekonomikoa du helburutzat. Bailarako 30 bat lagunek, Deba Garaiko Mendi Nekazaritzako elkarteak eta Leintz-Gatzagako Udalak bultzatu dute elkarteak. Transformazio-zentruaren bidez, zenbait produktu (mermeladak, barazkiak etabar) elaboratu nahi eta baserriaren halakorik egin ezin dituzten baserriarrei azpiegitura eman nahi die elkarteak, izan ere, inbertsio handia egin behar izaten da halako zentroak egiteko eskatzen diren osasun-baldintza bete ahal izateko, eta baserriarrek ezin du berak bakarrik inbertsio hori egin.

Beraz, nekezariekin osaturiko ekimen honek nolabaiteko baserriarren hutsunea bete nahi du eta, aldi berean, betiko barazketako produktuzaleei ere betidaniko eskeintza berbera mantendu. Jardueraren helburu nagusietako bat: ezertarako ere ez diren lursailak, erabiltzen ez diren belardiak, sasiarteak, etabar produkzio lur bihurtzea, baserriaren errenta orekatu ahal izateko. Hori guztia erdipean lortu nahi da, produktua merkatuan sartzen den neurrian eta kontsumitzailea kontzientziazten den neurrian. Argi dagoena zera da: artez eta eskuz egindako produktua kalitate ezinhobeko produktua da.

Amaia ZABALETA



Kontu ilunak

Azkenaldi honetan, bi hilketak astindu didate barrena. erabat ezberdinak baina bietan nagusikeria arbuigarria nabari. Komunikabide gehienak saiatu dira, gure giza-arima lasaitzeko-edo, bietan ere hildakoak errudun bezala aurkezten. Jakina, haiek ez dute ezer eztabaidatuko.

Bati buruz, Bilbokoa hain zuzen, ezer gutxi gaineratu daiteke, nahikoa entzun eta idatzi da. Agian, hogeit urte barru, norbaitek (bere interesez) egiaren bidea jorratu ondoren, gaur egiazat eman dигutena gezurra dela ziurtatu eta batzuk harritu egingo dira; gaur egun hainbat hilketekin gertatzen ari den bezalaxe. Ikusi besterik ez dago zer nolako jarrerara duten gure politikari gehienek losu Zabala, Marey, Lasa, Zabala...eta beste horrelako gertakarien aurrean. Herritar xumeontzat betidanik ezbairik gabeko egia izan dena, oraintxe, epaiketak medio, argitu da gure agintari jaun txit agurgarriendako. Ondorioak hain mingarriak izan ezean, txiste txar gisa hartuko nuke, baina...

Beste hilketak, berriz, ez du horrelako oihartzunik jaso, nahiz eta nire ikuspuntutik giza-jarrera baten oso adierazgarria izan. "Melba"ri buruz ari naiz, Esloveniatik Pirinio aldera ekarritako zazpi urteko hartz emea. Hamasei hilabete besterik ez du egin hemen alboko mendikatean, gizaseme batek tiroa jo eta zerraldo utzi baino lehen, benetan egonaldi motza asmo luzeko programa baterako. Piztiak (gizonezkoak) bere burua arriskuan ikusita jaurti omen zion tiroa, ederra kontua! Zeinek ikusi ote zuen bere eta, bide batez, familiaren (hiru hartz-kume) bizia arriskuan? Zein zegoen bere eremutik kanpo, eskopeta eta guzti, mendiko biztanleria murrizteko gertu? Gure artean egun hauetan zabalduko da ehizarako garaia; espero dezagun hori ez izatea euskal mendietan pairatu beharko dugunaren aurre-rapena.

Guzti horrek poema baten doinua dakarkit burura, bai hartzak eta baita gudariek ere, seguruenetik, berunaren haginkadaren aurretik barru-barruan somatuko zutena: nire aitaren etxea defendituko dut.

Roberto IZAGIRRE

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Udazkeneko moda gaztea jazteko,
neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale, 30 ARRASATE
Tf. 79 05 80

■ **Abdon Juaristiren omenez**

Arrasate Margo Taldeko kideek Abdon Juaristi zenari eskeini diote **Harresi aretoan** antolatutako erakusketa. Guztira, Arrasateko **19 margolarik** hartzen dute parte erakusketan eta euren maisu eta lagunari dedikatu nahi izan dizkiote kolektiboaren azken lanak. Abdon Juaristi margolari bergarra joan zen martxoaren 22an hil zen 48 urte zituela eta argi dago lagun asko laga zituela han eta hemen. Erakusketa **urriaren 5era arte izango da zabalik** Arrasateko Harresi aretoan, astebarruan 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.



■ **Bikote atomikoa**

Luis Markiegi “Marki” eta “Gin” Ilardua Espainiako **Rafting Txapelketa** ikusteko Pirineotan izan ziren. Aspaldi honetan raftingzale amorratuak ditugu “Gin” eta “Marki” eta txapelketako **entrenamenduetan** parte hartzea librea zenez, han izan ziren bi onenen artean murgildurik. Ez zuten txapelketan parte hartzerik izan baina hurrengo urtean (afizioari eta entrenamenduetan) eusten badiete behintzat) ziur aurreneko postuetan izango ditugula. Hori bikote atomikoa!!



■ **“Orain ezin duzu paso egin”**

Akulu-AEK Euskaltegiak, hasi berri den ikasturteari begira, euskara ikasteko kanpainari ekin dio eta hori dela eta **panel erakusketa** egin zuen zapatuan Zurraderon. Herrian euskara zein arlotan falta den azpimarratzen ziren, ikusleei euskara erabiltzeko gonbidapena luzatuz. **Gaur, eguakitzan, arratsaldean** ere panel erakusketa ikusgai ziangoa da plazan.



ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

Maxim's
 ☎ 76 20 61

KONDE

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57
 PANADEROKUA

■ **San Migelak Angiozarren**

Aurten ere giro bikaina izan da **Angiozarko San Migel jaietan**. Antolatutako ekitaldien artean zapatu gauean herriko gazteek gertatutako **sardina jana** (105 lagun bildu ziren) eta **ondorengo dantzaldia** nabarmendu daitezke. Primeran afaldu ondoren, angiozartarrak eta bertara hurbildutakoak **La parranda** taldearen mexikanadekin dantzan izan genituen. Astelehenean, jaiei bukaera emateko, ohi bezala **San Migelen zeruratzea** egin zen. Santua topatzen duenak



(Falceseraino ere iritsi zen behin) 15.000 pezeta eta bi lagunentzako afaria jasoko du. San Migelek ekialderako norabidea hartu zuen astelehenean. Ea Mir estazio ospetsuraino heltzen den oraingoan...



JUANIMA

egun ahaztezina igaro zuten. Euren lagun batek bidali digun argazkian Iñaki eta Teresa ikus ditzakezue. Orain ezkontza bidaian ditugu biak eta, datozen asteetan munduari bira emango diotela. Zorionak!!

■ **Ezkontza**

Teresa Aranzibia eta Iñaki

Aiastui bergararrak joan zen **irailaren 20an** ezkondu ziren.

Ezkontza **Getariako Akizu**

ermitan izan zuten eta jarraian, familiakoekin eta lagunekin batera, Zarautzko Otzarreta jatetxean bildu ziren bazkaria egiteko. Guztiak

Zertan dihardute ba?



Nuria Gomez

angiozartarra Bilboko Guggenheim museoaren inaugurazio hamabostaldian izango da lanean. Gaur ostirala martxan jarriko den hamabostaldian zehar museoa erakutsiko die bisitariei. Bere hitzetan,

"gure zeregina etortzen den jendea orientatzea izango da batik bat, non dauden obrarik ospetsuenak, zer aurkitu daitekeen bertan e.a.

Publikoarentzako zabaldu ondoren, etortzen diren taldeekin lanean jarraitzeko aukera izango dugu". Nuriak Turismo ikasketak egin zituen eta uda honetan Udaleko Turismo bulegoan lan egin du.

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

ZUBIETA
elektragarintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...
Eskatu ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Auriol Murphy

Eskoziar honek dagoeneko 17 urte daramatza gure artean ingelesa erakusten. Eguastenean 40 urte egin zituen (3 seme-alaba ditu) eta aste honetan bertan ikasturte berriari hasiera eman diote.

- "Murphyren legea" betetzen da zure kasuan?

- Nire bizitzako legea da!!

- Euskalduna ala eskoziarra?

- Eskoziarra.

- Zela iritsi zinen Bergarara?

- Amodioagatik, senarra Edinburgon ezagutu ondoren.

- Zer deritzozu Eskoziako erreferendumari?

- Emaizak ez nau harritu.

- Zergatik esaten da eskoziarrak zuhurrak direla?

- Ez gaituztelako ondo ezagutzen.

- Ness Lakuko monstroa benetakoa da?

- Jakina!

- Eskoziar whiskia ala patxarana?

- Patxarana igual...

- Eskoziar bisitatzeke hiru arrazoi eman.

- Paisaia, jendearen adeitasuna eta gure herrialdeari buruzko zalantzak argitzea.

- Eskoziarrek eta euskaldunek



"Amodioagatik etorri nintzen Bergarara, senarra Edinburgon ezagutu ondoren. Eskoziarrek zein euskaldunek herriarekiko maitasuna haundia dute"

badute zerikusirik?

- Bai, euren herriarenganako maitasuna.

- Zer botatzen duzu faltan Eskoziatik?

- Familia eta hizkuntza.

- Senarrak jantzi al du sekula gona eskoziarra?

- Ez dut uste.

- "Braveheart" ala "Rob Roy"?

- "Braveheart".

- Zer modukoa izan da lanera bueltatzea?

- Nahiko ondo joan da dena.

- Klaseak goizez ala arratsaldez?

- Goizez nahiago baina...

- Ikasle gazteak ala helduak?

- Denak.

- Ikasleak aztoratzen direnean?

- Lasaitu arte isilik egon.

- Zein adinetan ikasten da hobeto ingelesa?

- Zenbat eta gazteago hobe.

- Seme-alabekin, zein hizkuntzatan?

- Ingelesez normalean.

- Kantaririk gustokoena?

- Van Morrison.

- Irakurritako azken liburua?

- "Muchos maestros, muchas vidas", David Weiss-ena.

- Astebukaerarako plan on bat?


- Deskonektatzea, kostaldera, Mutrikura joanez.

- Infanta eta Urdangarinen

arteko ezkontza ikusiko duzu?

- Ezetz esan dut baina seguruen bai...

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza, 5 Tf. 76 41 50 BERGARA



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

I
G
E
L
T
S
E
R
I
T
Z
A

BLAK, S.L.

Fleming doktorea, 5
BERGARA

Mobilak:

907 44 50 38

907 46 57 38

I
G
E
L
T
S
E
R
I
T
Z
A

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 35 20.

Pisu amueblatua salgai Osintxun. Prezio onean.
☎ 76 36 61 (arratsaldez).

Pisu amueblatua salgai.
☎ 76 49 30 (gauetz).

Pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 04 57.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 45 27.

Pisua alokairuan Bilbon, Deustun. ☎ 76 13 14.

Garajea alokairuan Torre-kuan. ☎ 76 30 32.

Etxea salgai Maduran.
☎ 76 29 08.

Garajea saldu edo aloka-tzen da Santa Marinaran.
☎ 76 47 27.

Garajea saldu edo aloka-tzen da San Lorentzon.
☎ 76 58 28.

Garaje bikoitza salgai Torre-kuan. ☎ 76 30 32.

Garajea alokairuan Burdi-ñaten. 20m2. ☎ 76 40 03.

Pisua salgai Koldo Eleizal-den. ☎ 76 23 84.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 35 20.

Pisu bat alokairuan hartu-ko nuke. ☎ 76 59 54.

DENETARIK

Vitus bizikleta salgai.
☎ 76 08 21.

Ford Orion kotxea (1.6 D) salgai. ☎ 76 71 12.

Bi lagun behar dira Gas-teizen pisua osatzeko.
☎ 76 28 17.

Matxiategin pisua osa-tzeko lagun bat behar da.
☎ 76 30 01.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Ume baten txandal txaka-urdira galdu zen domekan. ☎ 76 70 75.

Urrezko belarritakoa gal-du dut anbulategia eta Zu-bieta artean. ☎ 76 47 84.

Gasteizen pisua osa-tzeko ikaslea behar da.
☎ 76 41 59 (Iñaki).

Braco aleman txakurra salgai. ☎ 76 63 71.

Ordenagailua salgai. 586 Pentium plaka. ☎ 76 19 16.

Arrantzako kainaberak salgai. Matxiategi 29, le-hen pisua ezkerre.

"Zero-sette" soinu txikia salgai. ☎ (945) 27 44 26.

Butanozko berogailua eta egurrezko kalefazio galdara salgai. ☎ 74 41 28.

LANA

Majisteritza ikasle batek haurrak zainduko lituzke.
☎ 76 49 38.

Matematika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

Majisteritza 3. mailako ikasle batek klaseak ematen ditu. ☎ 76 10 17.

Etxeko lanetarako edo atariak garbitzeko neska es-keintzen da. ☎ 76 13 46.

Ingeles eta OHoko klaseak. ☎ 76 22 95.

BBBko 2. mailako maisua behar da. ☎ 76 53 57.

Lan egingo nuke zapatu eta domeketan. ☎ 76 56 66.

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Klinika auxiliari batek gaisoak edo helduak zain-duko lituzke. ☎ 76 64 47.

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

Haurra zaindu eta etxeko lanetarako andre euskaldu-na behar da. ☎ 76 57 93 (15:00-16:00).

Haur bat zaindu eta etxeko lanetarako neska eus-kalduna behar. ☎ 76 38 01.

Etxeko lanak egingo ni-tuzke. ☎ 76 42 63.

Mate, fisika eta informati-ka klaseak. ☎ 76 46 03.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).



POL-POL
Taberna

☎ 76 07 78

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 76 71 19

ARREGUI, E.M.




AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

BONOFOTOA



Luis Molina

Luis Molinak jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Zurraga** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Luis Molinari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Ezkerreko iturria, ondoan duen letreroaren arabera, zein herritan eta zein auzotan dago? Eta eskumakoa, berriz, zein auzotan aurkitu dezakegu?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 PTA

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. PAGOMENDI	6	2	15	2
2. JAUJA OH ZEREZOS	6	2	6	2
3. BAR CANALEJAS	6	2	6	3
4. MONGATXURRA	4	2	11	5
5. AZPEITXI JATETXEA	4	2	4	4
6. AGINASI	3	2	3	13
7. ETXAGI	2	2	6	6
8. ERROTAGAIN	1	2	4	5
9. A ZE FLAXA ETXAGI	1	2	6	7
10. ORTZI	0	2	1	6
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	0	2	1	6
12. BILDURBAREK OPEL/LAM	0	2	3	10

A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. EZINLEIKE	6	2	24	7
2. MANTOU	6	2	14	1
3. GANBARA	6	2	9	3
4. AGIRREBEÑA JATETXEA	6	2	10	5
5. MRW	6	2	4	7
6. SHAKTALE	3	2	9	4
7. MOSKIS	1	2	2	8
8. ALDOKA MALDOKA	1	2	1	7
9. INDARGORRI	0	2	2	5
10. KAIXO	0	2	7	20
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	0	2	3	14
12. IGANDEKOAK	0	2	3	15


B multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK	6	2	14	3
2. SLO	6	2	4	0
3. AUTOBEREZI	4	2	9	3
4. ERDIBITERRAK	4	2	7	5
5. BAYER	3	2	5	9
6. JAKINA PT	3	2	12	7
7. AMILOTX	1	2	3	6
8. TXIPIRON	1	2	4	7
9. UVE BIKOITZA	0	2	2	5
10. AMOZKIBAR	0	1	2	9
11. KUSOAK	0	1	2	7

C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. NEKROFIKOS	6	2	18	2
2. GUADALEST	6	2	9	5
3. UFALA	3	1	6	2
4. FAC	3	2	6	5
5. LA JUVE	3	2	5	3
6. LA PEÑA DML	3	2	8	9
7. ERI SIRIMIRI	1	2	6	7
8. ETENGABE	1	2	2	6
9. MATXAKATEGI	0	1	2	5
10. PATATUS	0	2	3	19
11. KOMANDO PIPERRAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Toño Retes

TXIPIRON

ZELA HASI DUZUE TXAPELKETA?

Makal samar. Adinean aurrera goaz eta hastea kostatzen zaigu.

AZKENENGO PARTIDUKO BERDINKETA MEREZITAKOAZAN ZEN?

Bai, baina partidu guztian zehar irabazten joan ondoren berdinketarekin amaitu genuen.

FITXAKETARIK EGIN DUZUE?

Bai, Alfredo Najera fitxatu dugu. Halere, aurten bi lagunek taldea laga dute.

TXAPELKETAKO JOKALARI

BETERANOENAK IZANGO ZARETE?

Uste dut baietz, baina jokatzeko gustatzen zaigu eta oso gustora gaude.

AURKAKOIA USTEKABEAN

HARRAPATZEKO JOKATZEN DUZUE DOMEKERO 09:00ETAN?

Ez, taldeko guztiok ezkondu gaude eta haurrak ditugu. Ordu horretan jokatzeko dugu, gero seme-alabak pasiatzera eramateko.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa Etxagi.

ETA JOKALARIA?

Talde bereko Patxi Vallejos.

REALA UEFA N SAILKATUKO DA?

Ez dakit, baina badirudi entrenatzaile berria nahiko gogorra dela eta hori falta zitzaion taldeari.

LIGA PROFESIONALEKO ONENA?

Kiko eta Raul asko gustatzen zaizkit.

EMAITZAK

BAR CANALEJAS-ORTZI	3-1
PAGOMENDI-ERROTAGAIN	3-2
ETXAGI-A ZE FLAXA ETXAGI	4-4
MONGATXURRAK-AZPEITXI JATETXEA	4-4
JAUJA OH ZEREZOS-BILDURBAREK	3-2
ARLOTEAK/OILAGORRA-AGINASPI	1-3
MOSKIS-MANTOU	1-7
KAIXO-EZINLEIKE	4-13
INDARGORRI-GANBARA ARI ARI	0-2
SHAKTALE-ALDOKA MALDOKA	6-0
IGANDEKOAK-MRW	0-4
POLIDEPORTIVO TABERNA-AGIRREBEÑA JATETXEA	3-7
AMILOTX-AUTOBEREZI	3-3
TXIPIRON-ERDIBITERRAK	3-3
BAYER-JAKINA PT	5-3
UVE BIKOITZA JAM-SLO	0-1
USOA-ARTUSAMAK	2-7
FAC-GUADALEST	3-4
ETENGABE-LA JUVE	0-4
LA PEÑA DML-ERI SIRIMIRI	5-4
PATATUS-NEKROFIKOS	1-13

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: JAKINA PT-AMILOTX • MATXAKATEGI
10:00: MATXAKATEGI-FAC • UFALA
11:00: KOMANDO PIPERRAK-UFALA • AGINASPI
12:00: AGINASPI-MONGATXURRA • KOMANDO PIPERRAK
19:00: ARI ARI-POLIDEPORTIVO TABERNA • EZINLEIKE
20:00: EZINLEIKE-INDARGORRI • ARI ARI

Zapatuan kanpoan

11:00: ERI SIRIMIRI-PATATUS • LA JUVE
12:00: LA JUVE-LA PEÑA DML • ERI SIRIMIRI
16:00: GUADALEST-ETENGABE • BAYER
17:00: AMOZKIBAR-BAYER • MRW
18:00: MRW-KAIXO • AMOZKIBAR
19:00: NEKROFIKOS-KOMANDO PIPERRAK • KAIXO

Domekan barruan

09:30: MOSKIS-SHAKTALE • ALDOKA MALDOKA
10:30: ALDOKA MALDOKA-IGANDEKOAK • ERROTAGAIN
11:30: ERROTAGAIN-ARLOTEAK/OILAGORRA • IGANDEKOAK
12:30: MANITOU-AGIRREBEÑA JATETXEA • ARLOTEAK
16:00: AZPEITXI-JAUJA OH ZEREZOS • PAGOMENDI
17:00: ETXAGI-PAGOMENDI • BAR CANALEJAS
19:00: A ZE FLAXA ETXAGI-ORTZI • AUTOBEREZI
20:00: AUTOBEREZI-UVE BIKOITZA • ORTZI

Domekan kanpoan

10:30: SLO-TXIPIRON • ERDIBITERRAK
11:30: ERDIBITERRAK-KUSOAK • SLO

1997-98 denboraldian lau talde izango ditu BKEko saskibaloiak

BKEko saskibaloia sailak lau talde jarriko ditu lehian aurtengo denboraldirako. Erroka nagusia senior mailako taldeak izango du Hego Euskal Herri osoko taldeen kontra jokatu behar baitu joan zen urtean mailaz igotzea lortu ondoren.



SENIOR MUTILAK: Ezkeretik eskumara: Karlos Rufz (delegatua), Iñigo Martin (2. entrenatzailea), Mikel Etxeberria, Alfonso Romera, Mikel Garitano, Aniotz Gabilondo, Igor Urisabel, Ugutz Basauri, Fernando Moreto, Jordi Prat, Iñigo Ziarsolo eta Ramon Conde (entrenatzailea).

Hasiera ezin hobea izan dute Iruñako San Cernin taldeari 24 punturen aldearekin irabazi baitzioten. Gainontzeko taldeak mailari eustearekin eta espektakulua eskeintzearekin konformatzen dira.



JUBENIL NESKAK: Goian: Juan Benitez (delegatua), Maite Zumarraga, Miren Maiztegi, Maite Usabiaga, Ane Garces, Mireia Muñoz eta David Urbina (entrenatzailea). Behean: Yoana Rocha, Olatz Laborda, Cristina Manovel, Miriam Olabarria eta Eider Domenech.



JUBENIL MUTILAK: Goian: Unai Iñarra, Gorka Eraña, Alex Familiar (entrenatzailea), David Bouzas (delegatua), Jesus Morais eta Josu Sodupe. Behean: Angel Ortiz, Jokin Perez, Martin P. Etxebarri, Iban Herzog eta Gorka Unzueta.



KADETE MUTILAK: Goian: Aitor Gonzalez, Gorka Lobato, Angel Ortiz (entrenatzailea), David Bouzas (2. entrenatzailea), Ion Fernandez eta Jonathan Alcaraz. Behean: Andoni Gonzalez, Andoitz Igarza, Mikel Larrañaga, Iban Igarza, Gorka Lagoma eta Denis Armendariz.

Deco-Textil

ZANGITU

Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



zumelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZTU

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

KARTELDEGIA

FUTBOLA

♦ Bergara-Ilintxa

2. mailako kadeteak.

Zapatua, 10:00.

Ipintza futbol zelaia.

♦ Bergara-Lagun Onak

Lehen mailako kadeteak.

Zapatua, 11:30.

Ipintza futbol zelaia.

♦ Bergara-Aloña Mendi

Neskak.

Zapatua, 15:30.

Ipintza futbol zelaia.

♦ Bergara-UDA

Lehen mailako jubenilak.

Zapatua, 17:00.

Ipintza futbol zelaia.

ESKUBALOIA

♦ Bergara-Urola

Jubenil mutilak.

Zapatua, 16:15.

Labegarieta kiroldegia.

♦ Bergara-Hondarribia

Senior mutilak.

Zapatua, 17:45.

Labegarieta kiroldegia.

Aitor Zabaleta

Hirugarrenez Espainiako txapeldun

Aitor Zabaletak 3. urtez jarraian kotxeen mendi igoeren Estatuko txapelketa irabazi du. Txapelketa bukatzeko bi lasterketa geratzen dira eta San Juango gidariak ez du parte hartuko bere kotxea edo motorra Luis Txillida donostiarrari laga behar baitio.

- Zela joan da aurtengo denboraldia?

- Oso ondo. Estatuko txapelketan 8 lasterketa dira eta dagoeneko 6 korritu ditugu. Horietatik 5 irabazi ditut eta bi lasterketa falta direnean txapela eskuan daukat. Geratzen diren bi lasterketetara ez naiz joango, nire motorra edo kotxea Txillidari laga behar diot.

- Zergatik laga behar diozu kotxea?

- Azkenengo lasterketan kotxea apurtu zuen eta bere mekanikoa neu naizenez laguntza hori eskeini behar diot.

- Orduan aurtengo denboraldia bukatutzat eman duzu?

- Ez, Urrakin eta Euskal Herrian antolatzen diren beste lasterketa batzuetan parte hartzeko asmoa daukat.

- Gorko igoera berri antolatzeko proiektua zelan dago?

- Aurten antolatzeko nahiko zaila da. Oraindik ez dakigu Udalak eman dezkeena eta guk daukaguna. Lagun batek azarozan Jaizkibeleko lasterketa antolatu nahi du eta esan diot Jaizkibelen antolatu beharrean lasterketa Gor-

lan antolatzeko Euskadiko txapelketarako puntuagarria izanik. Harek baiezkoa eman zidan, baina nahiko berde dago. Gainera permiso aldetik zailtasunak izango dira eta liada handia baldin bada agian datorren urteko apiril edo maiatz aldean antolatuko dugu.

- Datorren urterako ze asmo dituzu?

- Europako txapelketa egiteko gogo handia daukat. Halere txapelketa horretan parte hartzeko aurrekontua asko igotzen da. Estatuko txapelketa

egiteko 16 miloi inguru behar dira eta Europakoa egiteko diru kopurua bikoiztu egiten da. Diru hori lortuz gero ziur parte hartuko dudala. Cepsak esan dit lagunduko didala, baina horrekin Espainiako txapelketarako bakarrik heltzen da.

- Estatuko txapelketa irabazteko zeintzu izango dira arerio nagusiak?

- Betikoak: Vilariño, Martinez eta Txillida. Guztiok material antzerakoa daukagu eta konpetentzia handia dago.



"Gorko igoera aurten antolatzeta zaila izango da".

“Europako txapelketan korritzeko aurrekontua bikoiztu egin behar dut”



Argazkia: Santi Iñarra

Ikasleen taldea, 1973

Joan zen astean Eskola Elementaleko irakasleen argazkia atera genuen sail honetan. San Juan Bosco egunean ateratako argazkia zen, ikasleen kontra Seminarioan jokatu zen futbol partiduen atarian ateratakoa.

Aste honetan, berriz, ikasleen taldea erakusten dizuegu. Argazkia Santi Iñarrak ekarri digu, joan zen astekoa ikusi eta gero. Berak emandako datuen arabera, partidua orain dela 24 urte jokatu zen, hain zuzen ere, 1973ko urtarrilaren 27an, zapatuan. Oraingoan ere ezin izan dugu jakin partiduko emaitza. Azkenean nor nagusituko zen, ikasleen gaitasuna eta indarra ala irakasleen jakinduria eta esperientzia? Ez dakigu.

Hara nortzuk diren argazkian agertzen direnak ezkerretik eskumara:

Zutik: Juan Luis Larrañaga, Juan Antonio Iturbe, Jesus Mari Madinabeitia, Santi Iñarra eta Fernando Igarza.

Makurtuta: Aitor Zubillaga, Txema Jauregi, Luxio Sanchez eta Jesus Mari Urriategi.



Eskertza

Urte honetan laguntza eman diguten guztiei eta batez ere Ikerren kuadrilari eta ikaskideei, mila esker.

Iker Zabalaren familia.



Udazken kulturala 97

EGITARAUA

Urria

- 4 Ados antzerki taldearen *Lamiak*. 22:30etan, Novedades aretoan
- 17 Kubako *Coro de cámara Entrevozes*. 20:30etan, Novedades aretoan.
- 19 Udal Musika Bandaren kontzertua. Eguerdiko 12:30etan, Novedades aretoan.
- 31 Naroa Enekotegi eta Aintzane Bazterretxea, pianoa eta ahotsa: Maitasuna operako Arietan. 20:00etan, Novedades aretoan.

Azaroa

- 8 Iñaki Salvadorren Zilbor Hestea Orkestra. 22:30etan Novedades aretoan.
- 15 Esteban Landarten organo kontzertua. 20:00etan, San Pedro parrokian.
- 22 Gernikako Andra Mari korala. 20:00etan Santa Marina parrokian.
- 23 Udal Musika Bandaren Sta. Zeziliako kontzertua. Eguerdiko 12:30etan, Novedades aretoan.
- 29 Txirene antzerki taldearen *Torito bravo*. 22:30etan, Novedades aretoan.

Abendua

- 5 Musika eskolaren kontzertua. 19:00etan, Novedades aretoan.
- 13 Esteban Elizondoren organo kontzertua. 20:00etan, San Pedro parrokian.
- 19 Virago antzerki taldearen *La dama del alba*. 22:30etan Zabalotegiko aretoan
- 20 Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra sinfonikoak eta Bergarako Orfeoia emandako Gabonetako kontzertua. 22:30etan, Udal pilotalekuan.
- 28 Oskorri eta Kukubiltxoren *Marijane kanta zan*. 17:00etan, Udal pilotalekuan.

Zehaztu gabeko datan: Rock jaialdia

KULTUR ETXEKO ERAKUSKETAK

Urriaren 20tik 24ra:

Mugen gainetik gobernuz kanpoko elkarteak antolatutako erakusketa. Kulturen arteko harremanak eta giza eskubideak argazki eta testuetan.

Azaroaren 21etik 30era:

Martin Linacisororen eskulturak, Simon Arrieta zeramika tailerrak antolatuta.

Abenduaren 19tik 28ra:

Bergarako pintoreen koadroak.

Abenduaren 30etik 1998ko urtarrilaren 11ra:

Bergarako eskultoreen obrak.

ZINEA

Ostegunero, zine-klubeko pelikula hautatuen emanaldia, 20:00etan.

- Udazken Kulturalako programa laster zeure esku ohizko tokietan.





ARBA



SUKALDE ETA DEKORAZI PROIEKTUAK

Eskualdeko Miele banatzaile bakarra. IREKI BERRIA.

Miele

SUKALDEAK eta ELEKTRATRESNAK



Hasieratik kalitatea

Juanita Arana
Mondragones kalea, 9 (azoka gainean) • ARRASATE
Tf./ Faxe: 77 07 50